



Poeta ibiltariak Poetes itinerants

llull institut
ramon llull



Poeta ibiltariak

Poetes itinerants

Esku artean duzun poema bildumak poeta katalan eta euskaldunen lanaren eta trukearen erakusgarri izan nahi du.

Ramon Llull Institutuaren eta Etxepare Euskal Institutuaren arteko elkarlanaren emaitza gisa, joan-etorriko bidai egin dute hainbat poetak. Rikardo Arregi, Iñigo Astiz eta Itxaro Borda poetek egin zuten Bartzelonara bidaia lehenik, maleta bete hitz, poeta katalanekin batera errexitaldia eskaintzeko maiatzaren 28an. Ondoren, 2016ko urtarrilaren 15ean emanaldi bera eskaintzeko egin dute joan-etorria Mireia Calafell, Jordi Julià eta Jordi Llavina poeta katalanek.
Horregatik poeta ibiltariak izenburua.

Poeta ibiltariena jarraipena izateko sortutako programa dugu, eta hurrengo geltokia Galizian izango du, etorkizunean poeta galiziarrak ere izango ditugu eta bidaide. Horien ekarpenarekin osatuko dugu argitalpen hau, guztiak ibilbide berean batzeko itxaropenarekin.

Bidelagun izango zaituztegulakoan,

Àlex Susanna
*Ramon Llull Institutuko
zuzendaria*

Aizpea Goenaga
*Etxepare Euskal Institutuko
zuzendaria*

El recull de poemes que tens entre mans pretén ser una mostra de la feina i l'intercanvi entre diversos poetes catalans i bascos.

Fruit de la col·laboració entre l'Institut Basc Etxepare i l'Institut Ramon Llull, un seguit de poetes s'han endinsat en un viatge d'anada i tornada. En primer lloc, amb les seves maletes plenes a vessar de paraules, van viatjar a Barcelona els poetes Rikardo Arregi, Iñigo Astiz i Itxaro Borda, on el dia 28 de maig van participar a un recital amb poetes catalans. El viatge de tornada tindrà lloc el dia 15 de gener de 2016, amb la participació dels poetes catalans Mireia Calafell, Jordi Julià i Jordi Llavina.
D'aquí ve el títol de poetes itinerants.

Es tracta d'un programa creat amb voluntat de continuïtat, que tindrà la propera estació a Galícia, tot esperant que en futures edicions s'hi incorporin poetes gallegos com a companys de viatge. Amb les seves aportacions completarem aquesta publicació, amb l'esperança de trobar-nos tots plegats en un mateix camí.

Esperem comptar amb la vostra companyia,

Aizpea Goenaga
Directora d'Institut Basc Etxepare

Àlex Susanna
Director d'Institut Ramon Llull



Poema guztiak *Bitan esan beharra* (Alberdania, 2012) liburukoak dira.

Gilen Akitaniakoak bezala

*Farai un vers de dreit nien:
non er de mi ni d'autra gen,
no er d'amor ni de joven,
ni de ren au,
qu'enans fo trobatz en durmen
sus un chivau*

GILEN IX, AKITANIAKO DUKEA

Gilen Akitaniakoak bezala
ezerez egingo dut poema,
ez nire buruaz, ez besterenaz,
ez amodioaz, ez gaztaraoaz,
ezerez hutsez,
esango dut lotan egin dudala
sofan etzanda.

Zein ordutan jaio nintzen ez dakit,
ez naiz atsegin eta ez naiz uzkur,
ez naiz goibel eta ez alegera,
ezin besterik,
ez bada gaeuz aurkitu nautela
parke batean.

Tots els poemes pertanyen al llibre *Bitan esan beharra (Cal dir ho dues vegades)* (Alberdania, 2012).

A la manera de Guillem d'Aquitània

*Farai un vers de dreit nien:
non er de mi ni d'autra gen,
no er d'amor ni de joven,
ni de ren au,
qu'enans fo trobatz en durmen
sus un chivau*

GILEN IX, DUC D'AQUITÀNIA

A la manera de Guillem d'Aquitània,
faré un vers no res dient,
ni sobre mi, ni d'altra gent,
ni de l'amor, ni del jovent,
sobre no-res,
només diré que l'escric estirat
al meu sofà.

No sé on vaig néixer ni a on,
no sóc esquerp ni sóc manyac,
i no estic trist ni massa alegre,
això és així,
em van trobar qualsevol nit
en algun parc.

Esaten ez badidate ez dakit
noiz nagoen ni lo noiz esna-esna,
bihotz gorria hautsi nahi zidan
min zorrotz batek,
ez nuke zentimorik ordainduko
malkoen truke.

Gaixo nago, heriotzaren beldur,
entzun dudana besterik ez dakit,
gustuko medikuren bila nabil,
non egongo den,
sendatzen banau ona izango da;
ez, hiltzen banaiz.

Laguna dut, noski, ez dakit nor den
inoiz ez bainuen inon ikusi,
ez dit onik egin ez txarrik ere,
niri berdin zait,
ez baita inoiz izan areriorik
nire etxeán.

Sekula ikusi gabe maite dut,
ez dit baietz esan ez ezetz ere,
ikusten ez badut ez naiz kezkatzen,
begipean dut
beste bat lerdenago, sendoago,
altuagoa.

Ez dakit non bizi den, Berlinen den
ala Parisen, ez, arren, Gasteizen,
ez dut esango egiten didana,
hobe isilik,
hona etortzeko asmorik ez du,
beraz, banoa.

No sé si dormo o estic despert,
algú m'ho hauria de recordar,
em va voler trencar el cor
un viu dolor,
però no donaria ni un cèntim
per les meves llàgrimes.

Estic malalt, amb por de la mort,
i només sé el que en sento a dir,
cerco un metge que m'agradi,
no sé on és,
serà bo si em sap guarir,
dolent si moro.

Tinc un amic, és clar, i no sé qui,
mai no l'he vist enllloc,
no m'ha fet mal, tampoc no m'ha fet bé,
i m'és igual,
no m'enemisto amb ningú
a casa meva.

Mai no l'he vist, però l'estimo,
mai no m'ha dit ni que sí ni que no,
no pateixo si no el veig,
en miro un altre
de més ben plantat, més fort
i molt més alt.

No sé on viu, si és a Berlín
o bé a París, o, sisplau, no, a Vitòria,
no goso dir el que m'explica,
millor callo,
no té intenció de venir aquí,
potser hi vaig jo.

Gilen Akitaniakoak bezala
egin dut poema, ez dakit zertaz,
norbaiten bidez bidaliko diot
beste norbaiti, eraman dezala
azkar Rigara,
eskatuko diot, berak badaki,
giltza gordea.

A la manera de Guillem d'Aquitània,
he fet un vers, no sé sobre què,
l'enviaré a través d'algú
a algú altre que el remeti
de pressa a Riga,
que li vull demanar, ell ja ho sap,
codis secrets.

Poetak eskari bat onartzen du azkenik

Konturatu nintzen lehen aldian
harridura iztuaz begiratu nien,
Barranquillo de Don Zoilo-n izan zen,
Las Palmas-en, eta bide osoa, beherantz,
oinen inguruan arin hegaka
egin zuten nirekin,
hiruzpalau izango ziren, bost, beharbada.
Goizero aurkitzen nituen leku berean,
goian, eta goizero errepikatzen zuten
ibilbide bera ene ondoan.

Zerbait eskatzen zidatela pentsatu nuen,
poema bat, uste dut,
baina ez nengoen prest
inondik inora, falta zitzaidana niri,
euskal literatura zamatzeko
tximeletez betetako poema batekin.
Beste bat gehiago oraindik ere?
Txori eta tximeleta gehiegiz ditugu
euskal literaturan.

El poeta finalment accepta un encàrrec

El primer cop que les vaig veure
les vaig mirar amb sorpresa recelosa;
va ser a Barranquillo de Don Zoilo,
a Las Palmas, i van enfilar amb mi
el camí de tornada
voletejant entre les meves cames,
tres o quatre potser, o potser cinc.
Cada matí, les trobava
al mateix lloc, allà a dalt,
i cada matí repetien
el seu joc al meu costat.

Vaig pensar que em demanaven alguna cosa,
suposo que un poema,
però no estava de cap de les maneres
disposat a carregar la literatura basca,
això ja seria massa,
amb un altre poema de papallones.
Encara un altre?
A les lletres basques ja hi ha massa ocells
i massa papallones.

Baina tematu ziren.
Gutxi dakit tximeleten bizitzaz,
llabur-llaburra dutela uste dut,
ezin izan, beraz, beti berberak.
Hiltzen zirenek zerbait
esango zieten jaio berri guztiei?
Tximeleta haietxikiak ziren, zuriak,
ez munduko eder eta ikusgarrienak.
Ahantzi nituen irla utzi nuenean.

Haietxikiak ziren, zuriak,
ez munduko eder eta ikusgarrienak.
Ahantzi nituen irla utzi nuenean.

Haien ez ninduten ahantzi, harrezkerotik
edonon agertu zaizkidalako.
Ikaratu nintzen ikusi nituenean
Arbanassi-tik gertu
Veliko Tarnovo-ra doan bidean hegan
ene oinen inguruau betiko moduan
tximeleta txiki zuri beldugarri haietxikiak.
Informazio sistema sofistikatua
izango zutela pentsatu nuen,
zerbait genetikoa,
kontinentez kontinente eskari zoroa
setatsu zabaltzeko:
Rikardo Arregiri poema bat eskatu,
Rikardo Arregiri poema bat eskatu.

Arbanassikoa ahantzi nuen,
baina tximeleten agerraldiak
ugariago bilakatu ziren
Daymán ibaiko bainuetxeetan,
Sežana-ko kaleetan, ondoren,
Bradway izeneko leku batean,
euria ari zuen
eta kristalean joka ikusi nituen

Però no van desistir.
No en sé gaire de la vida
de les papallones,
però crec que és molt curta
i, per tant, no podien ser sempre les mateixes.
Les que anaven a morir
transmetien potser l'encàrrec a les joves?
Eren papallones petites, blanques,
ni les més boniques, ni les més vistoses.
Les vaig oblidar quan vaig marxar de l'illa.

Però elles no em van oblidar a mi,
perquè se'm van continuar apareixent
als racons més llunyans del planeta.
Em vaig espantar en veure-les prop d'Arnabassi,
volant a la carretera de Veliko Tarnovo,
entre les meves cames, com solien,
petites, terribles i blanques papallones.
Vaig pensar que disposaven
d'un sofisticat sistema d'informació,
sens dubte gravat al codi genètic,
per transmetre obstinadament
un encàrrec insensat:
demanar-li un poema a Rikardo Arregi,
demanar-li un poema a Rikardo Arregi.

Vaig oblidar l'incident d'Arnabassi,
però la presència de les papallones
va continuar multiplicant-se:
als banys termals de Daymán,
als carrers de Sežana, i més tard,
en un indret que es deia Bradway,
plovia i picaven els vidres

poemak eta babesak eskatzen.
Hori izan zen beldugarriena.
Tel Aviv, Broadstairs, Ea,
Florianópolis, Saint-Girons, Pendueles.
Tximeleta txiki zuri arruntak,
betiko tximeleta txiki zuri arruntak
ene oinen inguruan hegaka.

Gaur azkenean amore eman dut
eta poema idazten dizuet.
Euskal literatura modernoak
barkatuko dit erori izana.
Mesede bat eskatzen dut bakarrik.
segí, segí agertzen edonon, edonola,
segí, segí agertzen,
tximeleta txiki zuri arruntok.

demanant poemes i aixopluc.
Aquella ocasió va ser la més terrible.
Tel Aviv, Broadstairs, Ea,
Florianópolis, Saint-Girons, Pendueles.
Vulgars papallones, blanques i diminutes,
sempre les mateixes petites papallones,
voletejant entre els meus peus.

Avui, finalment, cedeixo
i escric el seu poema.
La literatura basca moderna
ja em perdonarà que hagi sucumbit.
Només els demano ara un favor:
Continueu apareixeus, continueu,
sigui on sigui i com sigui, continueu,
continueu apareixent,
vulgars papallones blanques i diminutes.

Amodiozko poemak edo, XXII

*Un cœur, c'est peut-être malpropre. C'est
de l'ordre de la table d'anatomie
et de l'étal de boucher. Je préfère ton corps.*

MARGUERITE YOURCENAR

Bihotz gehiegi dago maitasun poemetan,
ematen dute sendagile poeta askok
edo harakin eskuak odoleztaturik
baina ez dakite zer den perikarditis bat,
elektrokardiograma bat, mina, sukarra,

Poemes d'amor més o menys, XXII

*Un cœur, c'est peut-être malpropre. C'est
de l'ordre de la table d'anatomie
et de l'étal de boucher. Je préfère ton corps.*

MARGUERITE YOURCENAR

Als poemes d'amor hi ha massa cors,
molts poetes semblen metges o carnissers
amb les mans plenes de sang,
però després no saben què és una pericarditis,
un electrocardiograma, el dolor o la febre,

nola zatitzen diren txahalak, arkumeak,
inoiz ez dute bihotz bat benetan ikusi.

Bihotz zati bat eskaini zidaten jateko
eta goragalea sentitzen dut oraindik.

Zuk berehala kontatu zenidan, hitz alfer,
zure deituraren esangura bihotz dela
zure hizkuntzan, nola ahoskatu behar den
azaldu, nondik eterri zinen hona, nola.

Gero telebista piztu zenuen futbola
ikusteko besarkada artean izterrak,
zure herriko futbolaren mailaz kexaka,
bihotzak ahantzi eta gorputzak maitatzen
hasi ginen hamazazpigaren minutuan.

com s'espejeja una vedella o un xai,
i mai no han vist un cor de debò.

Una vegada em van oferir un tros de cor
i encara tinc arcades.

Tu de seguida em vas explicar, per trencar el gel,
que el teu cognom vol dir cor en la teva llengua,
em vas dir com es pronuncia
i com vas arribar fins aquí.

Després, vas engegar el televisor
per veure el futbol, cuixes entre abraçades,
i, tot queixant-te del nivell del futbol del teu país,
ens vam oblidar dels cors i vam començar
a estimar els nostres cossos al minut disset.

Amodiozko poemak edo, XLII

Gure ordenagailu epeletan
berritzen ari gara biok orain
trobadore haiet kantatu zuten
urruneko amodio finena,
amor de lonh urdin perfektuena.

Senhal bat hautatzen zuten poetek,
kode sekretua amorantea
egoki deitu ahal izateko,
eta antzera jokatzen dugu guk
nick estaltzaileak aukeratzean.

Poemes d'amor més o menys, XLII

Tu i jo des dels nostres tebis portàtils,
renovem un amor de llunyania,
aqueell que van cantar els trobadors,
el més fi amor de lonh.

Ells triaven aleshores un senhal,
aqueell codi secret que anomenava
i definia la persona estimada;
nosaltres actuem d'igual manera
en escollir el nick que ara ens amaga.

Egia da irudi kontuetan
aurrerapen handiak ditugula
Erdi Arokoaz alderaturik,
argi da, konparatzen badugu:
miniatura ikusgaitz lausotxoak.

Pixelez eginiko ametsetan
ikus zaitzaket gura dudanean,
baina argazkia handitzen badut
xehetasun desiragarriena
lausotzen da, kilobyte gutxiegi.

Zure haragia tekleatzen dut
cam aurrean piztuta duzunean,
eta jainko ahaltsuen modura
Google Earth-en edo Google mapetan
zure espaloia ikus dezaket.

Beharbada ez gaude gu hain urrun
kilometroak asko diren arren,
ez da hain haragi gabetua
gure urruneko amodioa,
laster dugu hitzordua Berlinen.

No es pot negar que, pel que fa a la imatge,
hem avançat un munt des d'aquells temps remots;
és obvi si ens posem a comparar
aqueles imprecises miniatures.

Ara, et puc veure quan em plau
en somnis codifical píxel a píxel,
tot i que si amplio la fotografia,
per manca de kilobytes es desdibuixen
les parts més apetibles.

És la teva carn el que teclejo
quan ets davant la càmera engegada
i, talment un déu poderós,
puc voltar pel teu mateix carrer
en mapes de Google o de Google Earth.

Potser al capdavall no som tan lluny,
per molt que la distància ara ens separi,
el nostre perfecte amor de llunyania
no sobreviurà mancat de carn, i aviat
a Berlín tindrem una trobada.



Esperimentu geofagoa l(ab)orategian

*Lur guztia hozkatu eta
eta ahosabaian sentitu ahalko banu,
zoriontsuagoa nintzateke une batez...*

ALBERTO CAEIRO

Lur pixka bat hartu dut etxeko baratzetik
eta harrixkak baztertuta ahoratu gero,
baina ez dut denak kentzerik lortu.
Minduta, odoletan hasi zaizkit hortzoia.
Eta murtxikatzen jarraitu ahal
elkarrekin nahasten eta ahosabaira itsasten
sentitu ditut odola, lurra eta denborak
bere patxadaz bertan pilatutako mendeak.

Odola, lurra, mendeak. Hitz larriak hirurak,
baina baita zapore handirik gabeak ere,
eta birrintzen doaz, gainera, pixkanaka
hortz artean, eztarrian, urdailera bidean.
Paradoxikoa irudi lezake, funtsean
metatutako denborari buruz ari garelako,
baina urgentziazk bihurtu zait dena:
bizi-eramailea naiz orain.

Experiment geòfag a l'hort-laboratori

*Si pogués mossegar tota la terra
i sentir-la al paladar,
seria més feliç durant un moment.*

FERNANDO PESSOA

Agafo una mica de terra de l'hort de casa
i, després de treure'n les pedretes, me la menjo;
però no sóc capaç d'enretirar-les totes
i em faig mal a les genives, que em comencen a sagnar.
A mesura que vaig mastegant, noto
com s'enganxen al paladar, ben barrejades,
la terra i la sang, i també els segles
que hi han deixat petjada.

Sang, terra, segles. Tres paraules contundents,
però, alhora, força insípides
i que se'm van desfent a poc a poc
a les dents, a la gola i a l'estòmac.
Potser sembla paradoxal fins i tot,
quan estem parlant, de fet, de temps acumulat,
però tot se m'ha tornat urgent de sobte:
ara sóc un portador de vida.

Zuhaitz bat haz dezaket nigan,
eta metafora beharrik gabe
izan naiteke inoren gerizpe.
Konkista nazakete, alokatu, edo,
agian, baita bakean utzi ere,
garrantzi estrategikorik gabeko irla bat nola;
Izan ditzaket sustraiak, banderak,
eta biztanle gutxi gorabehera zoriontsuak.

Ardura handi baten jabe naiz.
Munduari indarrez lapurtutako
lurralde hau defendatu beharra dut
iraungo ez duela dakidan arren,
herrialde bat salbatu behar dut
haren desagerpena desio duten
beste herrialde eta mapa guztien aurka.
Baina dena ez da nekagarri. Une batez
atsegina ere bada geografia izate hau:
pertsona bezain leku sentitze hau.

Baita hondakinak ere (2012, Susa)

Puc deixar que creixi un arbre en mi
i ser, sense necessitat de metàfores,
el refugi d'algú.
Em poden conquerir, o bé llogar,
o fins i tot deixar-me en pau, com una illa
sense cap mena de valor estratègic;
puc tenir arrels, tenir banderes
tenir ciutadans més o menys feliços.

Recau en mi una gran responsabilitat.
He de defensar aquest territori
arrabassat al món
per bé que sàpiga que no ha de durar;
he de salvar un país
de tots els altres països i mapes
que voldran fer-lo desaparèixer.
Però no tot és cansat. Per un instant
és fins i tot agradables ser geografia:
sentir-se al mateix temps lloc i persona.

Baita hondakinak ere (2012, Susa)

Errautsak

Heriotzaz ari zara bazkalondoan, ama,
Zure heriotzaz eta Nireaz ere bai, ze
zure errautsak non zabaldu adierazi nahian zabiltzala
normaltasun beldurgarriz mintzo zara
nire existentzia aurreko heriotza modu hartaz.

Cendres

Parles de la mort havent dinat, mare.
De la Teva i de la Meva mort també,
perquè, mentre dius on vols que escampem les teves cendres,
et refereixes amb atroç normalitat
a aquella altra mena de mort, la prèvia a la meva existència.

Harrituta entzuten zaitut gainontzeko aukerak isildu eta Urbasa aukeratzen. Arrazoiak datozi gero; esaten didazunez, Niri esaten didazunez, han izan zineten beste edonon baino zoriontsuago eta han egon zineten Denak. «Ez daukat beste lekuriak nire errautsak zabaltzeko». Bare ari zara. Bareegi.

Zure egunik onenez ezer ez dakidala ohartu naiz kolpez, Ni gabekoak direla Zure egunik beteennak eta zuekin batera han egoteaz hasi naiz fantaseatzen, gogoan darabilzun nire jaiotza aurreko egun hori zuekin batera pasatzeaz; hizketan eta laino artean, kontatzen duzunet, elkar doi-doi ikustera helduz eta Gure kontuak ez beste iparrik gabe.

Ohartuko al zinateke nire presentzia, ama?
Ezagutuko al nindukezu semetzat? Eutsiko al zenioke
Ni izateko aukerari, baita Ni ezagutu ondoren ere?
Bat gehiago nintzateke, agian, izebareni eta zure artean,
bat gehiago Urbasan, Gu eta Besteentzat kozinatzen,
amonak zure bitartez pasatako patatak zuritu ahala,
zergatia ongi ulertzera iritsi gabe, baina, Ni ere
Zure zerbait handi horren parte sentituz.

Baita hondakinak ere (2012, Susa)

Estupefacte, m'adono que calles els altres indrets per triar Urbasa. Després, en dius els motius: segons dius, segons em dius a Mi, allà vau ser més feliços que enllloc més i, a més, hi vau ser Tots. «No tinc cap altre lloc per escampar les cendres». Ho dius amb calma. Massa.

De sobte, entenc que ho desconeix tot dels teus millors dies, que en els teus dies més plens hi manco Jo i em ve al cap fantasiejar amb ser amb vosaltres i compartir aquell dia, abans que jo nasqués, en el qual penses ara; i que parlem entre la boira, tot just entreveient-nos, com expliques, sense cap altre nord que les nostres històries.

T'adonaries de la meva presència, mare?
Em reconeixeries com a fill? Et mantindries
en l'opció de tenir-Me després d'haver-Me coneugut?
Podria arribar a ser un de més entre la tua i tu,
un de més a Urbasa, cuinant per a Nosaltres i per a tots els Altres,
podria arribar a pelar les patates que l'àvia et passa per a mi,
sense arribar a entendre'n el per què, però sentint-me part, Jo també, d'allò tan gran i Teu.

Baita hondakinak ere (2012, Susa)

Fonendoskopio frogatu nahi duzu

Eta hotza da metalaren memoria haragian.
Ahaztua nuen, baina horrek bereizten gaitu:
hau da gorpuek gogoratzen ez dutena.

Arnasa eskatu didazu eta nik eskaini
eta zahartzen entzuten nauzu, elkar
arnasaldiz arnasaldi hondatzen utziz.

Zure mediku isilunearentzat da orain
nire misterioa: bizirik nago. Baino
momentu batez niretzat gorde dut

horrekin harritu izanaren poza.

Pertsona batek mapa bat margotzen du Arraizko kobazuloetan orain 13.660 urte

Ahuntz bat, ur putzuak.
Hau da jakin behar duzuna.
Leku hau naiz: etorri.

Mendi, ibai, haran, gerizpe.
Hemendik pasa naiz ni.
Hemendik pasatuko zara zu.

Vols provar el fonendoscopi

I és fred el record del metall damunt la carn.
Ho havia oblidat, però és això el que ens distingeix:
Això és el que els morts ja no recorden.

Em demanes que respiri i t'obeeixo
i em sents com envelleixo, i plegats
ens deixem fer malbé amb cada alenada.

Ofereixo el meu misteri al teu silenci mèdic:
sóc viu. Però, per un moment,
em guardo per a mi l'alegria

d'haver-me'n admirat

Argitaragabea

Inèdit

Algú dibuixa un mapa a la cova d'Arraiz, ara fa 13.660 anys

Una cabra, els pous d'aigua.
Això és el que necessites saber.
Jo sóc aquest indret: vine.

Muntanya, riu, vall, obaga.
Per aquí passo.
Per aquí passaràs.

Ezagutzen ditut arriskuak:
mehatxuen kokapena egin dizut,
ehiza gunerik onenena. Oreinak.

Harria kolpatzen dut. Entzun
oihartzuna zabaltzen haranean,
marrazkia marraztutakoa estaltzen.

Hau da enarek hegaldi bakoitzean
hego kolpe bakoitzarekin eraitsiko dutena
eta hau da mantendu nahi dizudana.

Ikusten dudan guztia naiz.
Lurra mugi dezake nire zain
basoaren ikara txikienak.

Ikusi nola hazten dituen
errekkak nire egarriak, nola
trinkotzen basoak piztien uluak.

Elurra. Elurra orain.

Hedatzen noa ni ere. Pausatzen
basoko zuhaitzetako hosto
guztien aurpegi guztieta.

Ukitu gabe laztantzen ditut,
eta dardara egiten dute.
Hori iraunaz nahi dizut.

Gauzek ez dute izenik behar
hemen, gurutzatu ditzaket:
badira, banaiz, bagara.

Conec els perills:
marco els punts perillosos,
els indrets amb millor caça. Els cérvols.

Fereixo la pedra. Escolta
els ecos que s'escampen per la vall
com un nou dibuix amagat.

Els aboquen amb cada batec d'ala
cadascun dels vols de les orenetes,
i això és el que vull perpetuar per a tu.

Sóc tot allò que veig.
La terra pot agitar mentre la guardo
les pors més petites del boscatge.

Mira com fa créixer els torrents
la meva set, com densifico
udols de boscos en flames.

La neu. Ara, la neu.

M'escampo com ella. S'aturen
als arbres del bosc les cares
de totes les fulles.

Les acarono sense tocar-les
i les faig tremolar
perquè la tremolor arribi fins a tu.

Les coses no necessiten tenir nom
allà on les puc trobar:
si fossin, si fos, si fossis.

Baina marra hauen artean,
putzu, haran, ahuntz, gerizpe,
igartzen zaitut nonbait zu ere,

mendi, orein, hego, baso,
igartzen zaitut nonbait zu ere,
otso, harri, zulo, haran, su,
igartzen zaitut nonbait zu ere,
ikara baso, dardara, itzal,
igartzen zaitut nonbait zu ere.

Harri honetan zaude; bazara.
Harri honetan nago; banaiz.
Etorri. Hau da bizitzea hemen

Però, entre aquestes línies,
et faig endevinar, allà on siguis,
pou, vall, cabra, obaga,

et faig endevinar, allà on siguis,
muntanya, cérvol, ala, bosc,
et faig endevinar, allà on siguis,
llop, pedra, cova, vall, foc,
et faig endevinar, allà on siguis,
por, bosc, tremolor, ombra.

Ets en aquesta pedra; si ets.
Sóc en aquesta pedra; si sóc.
Vine. Aquí hi ha la vida.

Argitaragabea

Inèdit



Plaça del Diamant

*Merçé Rodoreda jatorrizko
Hizkuntzan irakurtzean.*

Colometaren bihotzean sua pizten
Denean hasten da dena
Eta urzoak hegan
Eta bitzitza oso bat neke artean:
 Aira aira aira
 Besterik ez da entzuten
Plaça del Diamant
Distiratsuan.

Gerra garratza eta latza etorri da,
Colometa alargundu
Eta urzoak ihes
Eta umeak gosez izuaren sotoetan:
 Bizi bizi bizi
 Besterik ez da entzuten
Plaça del Diamant
Distiratsuan.

Haurrak handitu dira eta Colometa
Adinean hara doa
Ilea zuri ditu

Plaça del Diamant

*Tot llegint Mercè Rodoreda
en la llengua original.*

Tot comença
quan s'inflama el cor de la Colometa
i volen els coloms
i una vida sincera entre tristors:
Aire, aire, aire,
no se sent res més
als esclats de la llum
de la Plaça del Diamant.

Ha vingut la cruetat sense fi de la guerra,
la Colometa ha enviduat
i fugen els coloms
i la gana amenaça els nens al rebost buit.
Vida, vida, vida,
no se sent res més
als esclats de la llum
de la Plaça del Diamant.

Els nens han crescut i la Colometa,
que ha envellit a la plaça,
ja té els cabells blancs

Eta jartzera doa iturri maldara:

Lana lana lana
Besterik ez da entzuten
Plaça del Diamant
Distiratsuan.

Eta orain Colometaren alabaren

Ondokoek duten tabernan
Biltzen dira jendeak
Telebista haren aitzinean orroaz:
Messi Messi Messi
Besterik ez da entzuten
Plaça del Diamant
Distiratsuan.

i va a seure a l'ombra de la font.

Treball, treball, treball,
no se sent res més
als esclats de la llum
de la Plaça del Diamant.

I avui, les filles de la Colometa

s'afegeixen a la gentada
que omple els bars dels voltants
per cridar davant els televisors.
Messi, Messi, Messi,
no se sent res més
als esclats de la llum
de la Plaça del Diamant.

Argitaragabea

Inèdit

Traducció: Pau Joan Hernàndez

Maria Merceren (b)egia

Maria Merce Marçalen omenez

Urtea eman dinat hire hitzak biltzen.
Ene mintzairan ere ez hintzen isiltzen.
Elerik samurrenak nintinan ibiltzen
Eskail nagiaz itsu, mirail biribiltzen.

Hire begia zunan, lotsarikan gabe,
Zabaltzen azkorrian, argiaren jabe:
So urratua zohar, batzutan herabe,

Mirada i veritat de Maria Mercè

En homenatge a Maria Mercè Marça

He passat l'any aplegant els teus mots.
No callaves tampoc en la meva parla.
Caminen entre tu i jo les paraules més tendres
com reflexos al mirall o estelles de mandra.

Els teus ulls desperts, sense vergonya,
són amos de la llum:
clara mirada esquinçada, un deix de timidesa,
que m'ha apuntalat l'amor pel món.

Egin dinat munduaz amodio habe.
Gatzaren andereak ditizten girkiltzen
Baina aritzen gaitun tipulak bipiltzen
Heriotzari trufaz, oraindik nerabe.

Dugun kanta bizia, aditzen norabe,
Berma dakigun egi biluzien labe:
Urtea eman dinat hirekilan hiltzen.

Zure hatzaren ez galtze (2014, Elkar)

Dona de sal, clar dringar de picarols,
però capaç encara de fer-nos venir el plor,
burlant-se de la mort, encara adolescent.

Cantem ara la vida, escolta'm allà on siguis,
sabem mantenir la flama de la veritat nua:
aquest any t'he donat morir amb tu.

Zure hatzaren ez galtze (2014, Elkar)

Traducció: Pau Joan Hernàndez

Hizkuntza politika 1

Hizkuntza politika eraginkor bat
Bideratzen dinat mihi
Hire zulo beltz guztieta
Lehia arazten dudanean:
Izendegiak biluz isurtzen zaizkidan
Eta aditzak busti.
Puntu kakotx.
Lehenik gorputzen oinarrizko lexikoa
Bihikatzen dinat
Eta eskua, eme eta ezti, sekretuak
Heze dauden deklinabide arauetan hara
Galtzen uzten dudanean
Hasperen barnakorraz
Aldarrikatzen haiz,
Menperatzen haiz,
Harilkatzen haiz
Ene beso artean.

Política lingüística

Engego una política lingüística eficaç
cada vegada que adreço la meva llengua
a cadascun dels teus negres forats:
Se m'escampen nus els sistemes nominals
I se'm palatalitzen els verbs.
Punt i coma.
Primerament, esgrano el lèxic bàsic:
Mà, dóna, dolça, tendra, secrets
I em deixo perdre
en les normes d'aquestes
declinacions humides.
Amb un profund sospir
Et reivindiques,
Et sotmets,
Et conjugues
Als meus braços.
Llepo la salada suor
que se't posa al darrere del coll

Lepo gibelean perlatzen zainan
Aditz-erdi gazia milikatzen denat
Gero,
Hire hats hartze kolpekatuak
Hondartza ilunetan dauden elezaharren
Amorrua laburbiltzen duclarik.

Hortz oldarkoiaz
Diti punta ausikitzen diadan unean
Hizkuntza politika eraginkor bat
Bideratzen dinat
Bi hitzetan
Higan gozatuz:
 Puntu kakotx.
 Puntu marra.

Perquè després,
La teva respiració colpida
Resumeixi
La ràbia dels romanços de les platges fosques.
 Mossego el teu pit
amb dents agosarades
Per fi, engego una política lingüística eficaç
Gaudint en dues paraules
en tu:
 Punt i coma.
 Punt i ratlla.

Noiztenka, Maiatz (2007)
Traducció: Maria Colera

Noiztenka, Maiatz (2007)

Tribal song

I.

Alaba gehien bat naiz.
Azken hastu zinen hauste goiztirian
Ordea, nehoiz gozatu ez zenuen
 Zure ama izan nintzen:
Haurrak bular agorretan
Gose auhenez dabilzkien amaizun
Ezezagunen sabel idorretatik
Sortu ahizpa ugari daukat.
Sendiaren hariak galdu ditut.

Tribal song

I.

Sóc la primogènita.
Però en trencar l'alba que et vas despollar per últim cop
vaig ser la mare
que mai no vas gaudir:
Tinc moltes germanes
nascudes de ventres estèrils
de madrastres desconeugudes
que s'ocupen de xiquets
de planys famolencs.

Izatea uhertu zait.
Alaba gehien bat naiz:
Otsozelaiko harpearen maldan
Bizirik ehortz nazazue.

II.

Argia itzali da.
Harriak ferekatzen ditut.
Ilunbeak ez du mugarik,
Ez du sinesterik,
Ez du trabarik,
Ez du edertasunaren eredurik.
Argia itzali da.
Begiak ditut eta itsu naiz.
Belarriak ditut eta elkor noa.
Bideak ditut eta pentsuaren
Ohizko errepide
Sarraskituetatik nabil.
Hitzak ditut eta mutu nago:
Zergatik ez dut erran sekula
Nintzena nintzela?
Argia itzali da eta
Gau beltzaren gorputza
Laztantzen dinat
Hirea bailitzan.

Noiztenka, Maiatz (2007)

He perdut els vincles amb la tribu
Se m'ha enterbolit l'existència
Sóc la primogènita:
Enterreu-me viva
a la falda de la gruta d'Otsozelai.

II.

S'ha apagat el llum.
Acarono pedres.
La foscor no té límits,
no té creences,
no té obstacles,
no té models de bellesa.
S'ha apagat el llum.
Tinc ulls i sóc cega.
Tinc orelles i vaig sorda.
Tinc camins i segueixo
els camins fressats
del pensament habitual
Tinc paraules i estic muda:
Per què no he dit mai
que era allò que era?
S'ha apagat el llum i
Acarono
el cos de la negra nit
com si el teu fos.

Noiztenka, Maiatz (2007)
Traducció: Maria Colera

Estacio de Franca II

*L'amor és aquesta arma carregada
de soledat i de melancolia*

JOAN MARGARIT (1999)

I.

Geltokira iritsi da trena.
Ke beltzeten bukatzen da bidaia.
Begira nagokizu. Malkoen gazia
Urtzen doa hatsaren lurrinetan:
 Iragana jazartzen zaizu
 Karrika hegian eske.
 Etorkizuna ito duzu
 Nahikunde hotzen
 Sabeletan.
Beldurra dator, pizti latz,
Hherdoila idorrez gose,
Bakartasunaren zeinuak
Azkena jo bezain laster.
 Geltokira iritsi da trena.
Poesiak ez du eguna salbatuko:
Erraten dute merkea dela,
Denbora galtze zaharra
Eta ez duela nehor aberasten.
Alderantziz.
Argia bihikatzen duen
Burdinezko hegatsak oinarrizko
Pobreziaren distira du bereziki
 Gerizatzen.
 Geltokira iritsi da trena
Eta ordulariaren orratzak
Desio zoharren

Estació de França II

*L'amor és aquesta arma carregada
de soledat i de melancolia*

JOAN MARGARIT (1999)

I.

El tren arriba a l'estació.
El viatge s'acaba entre el fum negre.
T'estic mirant. Les llàgrimes salades
es van fonent en l'alè perfumat:
 El passat t'escomet
 mendicant a cada cantonada.
 Has ofegat el futur
 en un desig fred
 al ventre.
Ve la por, bèstia temible,
amb fam de rovell aspre,
el signes de la solitud
tard o d'hora acabaran colpint-te.
 El tren arriba a l'estació.
La poesia no ens salvarà el dia:
Creiem erròniament que és barata,
vella pèrdua de temps
que no enriqueix ningú.
 Al contrari.
 Les plomes de ferro
són fonamentals per esgranar la llum,
i sobretot la resplendor que amaga
la pobresa.
 El tren arriba a l'estació
i les agulles del rellotge
es tornen murs per limitar

Mugetan hormatu dira:
Aiduru-gela hutsik dago
Gure ohea bezain.

II.

Badakit orain zer dudan egiteko.
Estacio de Françako tabernan jarri naiz
Kafearen aitzinean gogoeta:
 Haize nasaiak urratuko lukeen
Harri borobil leunaren pare natza,
Gogor eta hauskor batera.
Isiltasun sakonaren errota dorpeak
Lehertzen eta berrosatzen nau,
Gero zipitzik ez duen poeta gurbil,
Xoxo eta debaldea
 Banintz bezala.
EZ naiz deusetara helduko. Alaina.
Munduarekiko lotura materialak
Mozteko gutizia ernatzent zait
Estacio de Françako tabernan:
 Badakit orain
Zer dudan
Egiteko.

Outside nago.
Has been baino has behin
bat baizik ez naiz
oraindik ere.
 Ene poesia
 a-soziala
 dela
dinotsut

el clar desig:
La sala d'espera és silenciosa
com el nostre llit.

II.

Ara sé el que cal fer.
Sec al bar de l'Estació de França
reflexionant davant un cafè:
 Hauria pogut esquinçar l'aire tranquil
amb la suavitat d'un còdol, com un eix,
alhora fort i trencadís.
En un pregón silenci, la feixuga roda
m'esclafa i em reconstitueix,
després, no en queda res de la poeta assenyada,
beneita i mandrosa
que era jo.
No arribo enllloc. De cap de les maneres.
Al bar de l'Estació de França,
se m'ha despertat el desig vehement de tallar
els vincles materials del món.
 Ara sé
 el que cal
fer.

Estic outside.
Segueixo
no sent més que
una que torna a començar.
Et dic
 que
 la meva poesia
és a-social

outsidera
deitzen zaitudan
bitartean.
Ez dut laudatiorik nahi
basamortuan oihuz dabilen
ahots ibiltaria
baizik ez naizelako
oraindik ere.

Ene poesia
a-soziala
dela
dinotsut.
Ez dut ezagupenik nahi
ez egun, ez bihar, ez etzi,
basamortuan kantari dabilen
sakrifikatuaren itzal
alderraia
baizik ez naizela
dagoeneko.

Ene poesia
a-soziala
dela
dinotsut.
No future outside:
Ahantzi dezatela
Ene poesia
a-soziala
gure amen izerdiak
ahantzi diren bezala.
Amen.

mentre
et crido
a l'outside.
No vull cap laudatio
atès que
segueixo
no sent més que
una veu ambulant
cridant pel desert.
Et dic
que
la meva poesia
és a-social
No vull cap reconeixement
ni avui, ni demà, ni demà passat
atès que
ja
no sóc més que
una ombra sacrificada
vagrant pel desert
Et dic
que
la meva poesia
és a-social
No future outside:
Que oblidin
la meva poesia
a-social
Igual que han oblidat
la suor de les nostres mares.
De les nostres mares.
Amen.



De *Tantes Mudes* (Perifèric edicions, 2014)

Naufragi

Pel canal obert que deixen les esquenes
baixa com l'aigua el temps de les promeses.
Dormiu i no veieu desfilar els verbs
—còdols que desemboquen a altres mars—:
veureu, fareu, tindreu, viureu, sereu.
No us ho pensàveu, no ho esperàveu,
però el cabal del desencís ha anat pujant
i al llit, sou el que éreu: una parella
que ja no es mulla i va al revés, en desacord,
desfent l'amor, apassionadament.

Tantes Mudes liburutik (Perifèric edicions, 2014)

Hondoratzea

Bizkarrek uzten duten ubide irekitik
uraren antzera jaisten da promesen denbora.
Lo zaudete eta ez dituzue ikusten hitzak desfilatzen
—beste itsaso batzuetara doazen errekarriak—:
ikusiko, egingo, edukiko duzue; biziko, izango zarete.
Ez zenuten uste, ez zenuten espero,
baina desliluraren emaria bultzaka aritu da,
eta ohean, zinetenak zarete: bikote bat,
jada bustitzen ez dena, atzekoz aurrera doana; ados ez, eta
amodioa desegiten, suharki.

Literatura

No t'ha besat i ha marxat amb pressa,
i ha arribat a casa, i ha encès l'ordinador,
i ha escrit *no t'he besat, no t'he besat la boca*
i ara què en faig jo d'aquest voler-te als llavis.

En fa literatura. Només literatura.

Literatura

Ez dizu musurik eman, eta presaka joan da,
eta etxera iritsi, ordenagailua piztu, eta idatzi du:
ez dizut musurik eman, ez dizut ahoan musurik eman,
eta zer egin behar ote dut nik orain zu ezpainetan maitatzeko gogo honekin.

Literatura egiten du horrekin. Literatura besterik ez.

Certesa

Saber interpretar què està dient
una piscina deserta quan fa fred,
una nòria aturada un dilluns qualsevol
sense núvols de sucre ni llums de neó,
o el tendal d'aquell circ que ja han desmuntat
—prou d'acrobàcies, de trucs, de màgia.

Entendre i acceptar que són això també:
dies tediosos buits d'atracció,
un paisatge insòlit que amenaça,
que es fa present cíclicament.

Saber-ho és, a la vegada,
acollir la certesa que el teu cos
no serà —no podrà ser— totes les nits
aquesta festa d'ara.

Persistència

Què atrau els mosquits de la bombeta
si en atansar-s'hi esclaten i l'ombra se'ls empassa?
Quina inquietud mou les abelles a picar
si amb el fíbló clavat endins moren després?

Perquè no podem respondre, persistim.
Perquè no volem pensar-hi, ens atrevim
i alcem el vol sota els llençols de nit, així.

Ziurtasuna

Zer esaten ari diren interpretatzen jakitea:
igerileku jendegabe bat hotz egiten duenean;
norria geldi bat edozein astelehenetan,
ez azukre-kotoirik ez neoi-argirik gabe;
edo jada desmuntatu duten zirku haren karpa
—akrobaziarik, trukorik, magiarik ez jada—.

Ulertzea eta onartzea honako hau ere badirela:
egun hutsak, erakarpenik gabeak;
mehatzu egiten duen paisaia ohi ez bezalakoa,
ziklikoki agertzen zaiguna.

Hori jakitea da, aldi berean,
ziurtasuna onartzea zure gorputza
ez dela izango —ezin izango dela izan— gauero
oraingo festa hau.

Irautea

Zerk erakartzen ditu bonbillako eltxoak,
hurbiltzean lehertu egiten badira, eta itzalak irentsi?
Zein ezinegonak bultzatzen ditu erleak heltzera,
eztena barrenean iltzaturik hilko badira gero?

Erantzun ezina dugulako irauten dugu.
Horretan pentatu nahi ez dugulako, ausartu,
eta hegaldatu egiten gara, gauaren izaren azpian, halaxe.

Balenes franques

Quina delícia el joc de les balenes
quan no hi havia espècies ni hemisferis.
Quanta complicitat sota la mar
abans de l'espetic, de l'estampida,
d'aquell fugir sense saber per què
cap a altres oceans i separar-se,
d'aquell partir-se el gel inexplicable.
I ja mai més els dies sense temps
on tot el que calia era saltar,
i ja mai més foren regals les ones
sinó un recordatori de distàncies,
el dolor constant de qui ha perdut l'altre.

S'estimaven, jo sé que s'estimaven.
És fàcil reconèixer en els teus ulls
el moviment tectònic de l'adéu,
l'angoixa a la mirada de les bèsties,
com d'alts eren els salts que tu i jo fèiem.

Sardako baleak

Zeinen ederra baleen jolasan,
espezierik eta hemisferiorik ez zegoen garaian.
Zenbateko konplizitatea itsas azpian,
eztanda hotsa eta harrapakako uxaldia baino lehen;
zergatik jakin gabe, beste ozeano batzuetara
ihes egin eta sakabanatze hura,
izotz kraskatze ulertezin hura baino lehen.
Eta gero sekula ez gehiago denborarik gabeko egunak,
jauzi egitea beste egin beharrik gabe;
eta sekula ez ziren berriz izan olatuak opari,
ezpada distantzién oroigarri,
bestea galdu duenaren min iraunkorra.

Elkar maite zuten, nik badakit elkar maite zutela.
Erraz sumatzen da zure begietan
agurraren mugimendu tektonikoa,
larritasuna piztien begiradan,
zeinen ziren altuak zuk eta biok egiten genituen jauziak.

Muda

Lentament —tampoc no hi ha alternativa—, es treu la roba.
Quanta dificultat en els botons de la camisa per uns dits
tremolosos com els seus. I els pantalons, els pantalons
són una prova d'equilibris, de paciència i dignitat,
com dir *no puc* en aquest ordre. Com dir, com l'ordre.
Quan és nua del tot torna a vestir-se, reprèn el ritual.
I així fins que s'acaba el dia i a ella, els dies, se li acaben.
No acceptarà mai que sols les serps, en fer la muda,
poden desprendre's d'escates i, alhora, de ferides.

Azalberritzea

Geldiro —baina ez da beste aukerarik— arropa eranzten du.
Zer-nolako zaitasuna alkandorako botoietan, bereak bezalako
hatz dardarati batzuentzat. Eta frakak, frakak
oreka-proba bat dira, egonarri eta duintasun proba,
ezin dut ordena horretan esatea bezala. Esatea bezala, ordena bezala.
Gutiz biluzirik dagoenean, berriz janzen da, errituari berriro ekiten.
Eta hala, eguna amaitu arte; eta berari, egunak, amaitzen ari zaizkio.
Ez du sekula onartuko bakarrik sugeek, azalberritzean,
jaregin ditzaketela ezkatak eta, orain, zauriak.

Llops

«Un llop
que no sembla
un llop
entra a una casa,
toc-toc
devora l'àvia,
o la fa fora
de casa,
de casa seva,
a la pobra àvia.»

No tinguis por,
és sols un conte.
Res d'això passa,
un conte i prou
—em repetíeu.

Però mai,
mai no us vaig creure.

I ara les notícies
em donen la raó.

Otsoak

«Otso baten
antzik ez daukan
otso bat
etxe batera sartu da
kax-kax
amona irentsi du
edo etxetik,
bere etxetik,
bota du
amona gaixoa.»

Ez izan beldurrik,
ipuin bat besterik ez da.
Halakorik ez da gertatzen,
ipuin bat eta kito
—errepikatzen zenidaten.

Baina ez nizuen sekula,
sekula sinetsi.

Eta orain albistegiek
arrazoia ematen didate.

Subjuntiu

Que la llum de juliol t'enceti les parrelles
i et voli la mirada enllà de tots els arbres,
que l'olor de la terra en esclatar les flors
t'encengui els narius, t'obri de ple les venes,
que els llavis de mil boques inquietes de rosada
et facin un vestit color encès de magranat,
i tots els dits del món et toquin l'entrecuix

quan sigui a mi a qui busquis, meva la pell que et trobi.

Subjuntiboa

Uztaileko argiak zauri diezazkizula betazalak
eta eraman diezazula begirada zuhaitz guztietatik harago;
lurraren usainak, loreak lehertzean,
sudurra piztu diezazula, zainak guztiz ireki;
hamaika ahoren ezpaineik, ihintzez urduri,
soineko bat egin diezazuten, mingrana kolore biziz,
eta munduko hatz guztiak iztartea uki diezazuten,

bilatu, ni bilatzen nauzunean; aurkitu, nire larruak aurkitzen
zaituenean.

Eclesiastès

*Tot això va passar i no va passar,
tot tornarà a no passar un altre cop,
però tornarà*

FRANCESC JOSEP VÉLEZ

No hi ha res nou en tot el que diem:
ni en l'esforç tossut de la bellesa
ni en el lament profund de cada pèrduda.
Tampoc al centre exacte dels poemes,
allà on la llum inevitablement encega.

Mai és el primer cop, mai és prou brusc
ni contundent el gest que imita i diu
confia en mi que sí, sempre hi seré.

No hi ha res nou, tret del silenci.

Koheleten liburua

*Hau guztia gertatu zen eta ez zen gertatu,
berriz ere guztia ez da gertatuko,
baina itzuliko da*

FRANCESC JOSEP VÉLEZ

Ezer berrik ez da esaten dugun guztian:
ez edertasunaren ahalegin setatian,
ez galera bakoitzaren aiene sakonean.
Ezta poemen erdigune zehatzean ere,
han non argiak ezinbestez itsutzen duen.

Sekula ez da lehen aldia, sekula ez da behar bezain
bat-bateko eta sendoa keinua, antzeratu eta dioena:
fida zaitez nirekin, zeren bai, beti hor egongo naiz.
Ezer berrik ez da, isiltasuna izan ezik.

Casa en venda

Quasi cec i barbat obre la porta
i ens llença una mirada, en alçar els ulls,
de vergonya i de súplica inclement,
com el rei que de sobre les muralles
feia obrir el gran portal als enemics
que després d'anys de setge aconseguien
veure franca l'entrada del castell.
Se sent pudor de pols i d'humitat,
i de brutícia d'home sol que colga
la convenció social d'hygiene al fons
del cubell de la roba per rentar.
Es veu la floridura a les parets,
i a les taronges dins de la fruitera,
i hem oblidat que a fora esclata el sol
sobre els pètals de neu volant pel blau.
El vell espera dret i derrotat,
i barreja impotència i esperança
mentre anem violent cambres —les més íntimes—,
enderrocant envans i refent plantes,
i fem runa d'un temps de parets mestres
que va bastir la vida a una família.
Els bàrbars som nosaltres, i els diners
faran d'ell un apòstata que ven
els protectors, però cruels, déus lars.
Ara per una casa massa gran
ha de deixar el seu llit de matrimoni
i vol tornar al seu poble blanc del sud

Etxea salgai

Ia itsu, eta bizardun, atea ireki,
eta, begiak altxaturik, lotsa eta erregu
behako bihogzabe bat egin digu,
errege batek, harresien gainetik,
ataritzarra irekitzeko aginduko balu bezala,
hainbat urtetako setioaren ostean
azkenik gazteluko sarrera zabalik ikusten zuten etsaintzat.
Hauts eta hezetasun kiratsa dago,
eta, bakarrik, higienearen gizarte-araua
garbitzeko arroparen ontzian lurperatu duen
gizon baten zikin-usaina.
Lizuna ikusten da hormetan
eta fruta-ontziko laranjetan,
eta ahaztu egin dugu kankoan eguzkia lehertzen ari dela:
elur-hostoak urdinean hegan.
Tente, agurea zain dago, porrot egina,
ezintasuna eta itxaropena nahasiz,
gu gelak —barnekoenak— bortxatzen ari garela,
trenkadak eraitsiz eta solairuak berreginez,
hondakin-orube bihurtuz familia baten bizi-zutarri
izan ziren horma nagusien garai bat.
Barbaroak gu gara, eta diruak agurea bihurtuko du
etxeko jainko babesleak, baina ankerrak,
saltzen dituen apostata.
Orain, etxea handiegi bihurturik,
ezkon-ohea utzi behar du;
hegoaldera, bere herri zurira, itzuli nahi du,

on la llum és més clara i més intensa,
com en una postal de la infantesa,
i on ja només l'esperen els espectres
d'aquells que va estimar, i que va dir amics.

Els déus de fang (2007)

han argia gardenagoa baita, eta biziagoa,
haurtzaroko posta-txartel batean bezala,
eta han bakarrik baititu zain
maite zituenen, adiskide deitu zituenen mamuak.

Els déus de fang [Lokatze jainkoak] (2007)

L'espera

L'espera es fa més llarga quan degota
el temps a les aixetes de la pica,
i el buit de la cisterna es va omplint d'aigua.
Asseguda al damunt de la banyera
se li clava a la carn el fred d'un vàter,
i apreta entre les mans la realitat,
perquè no hi ha cap mà que les agafi.
Només quatre minuts per la incertesa,
com la que van sentir els antics herois
quan preguntaven per la seva sort
a l'oracle de Delfos. Només quatre
minuts per desitjar que tot segueixi
repetint tots els tons d'una grisalla,
mentre el perpetu curs de l'aigua trenca
el silenci i treu fre al batec dels polsos.
Només quatre minuts interminables
per pensar en una vida que s'esfondra,
com fa molts anys va fer el colós de Rodes;
per evitar preguntes i trobar
les solucions a una equació difícil
de resoldre, en haver d'aïllar la incògnita.

Itxarotea

Itxaronaldiak luzeagoa dirudi denborak
harraskako txorrotetan tantaka jardun,
eta tangako hutsartea urez betetzen ari denean.
Bainuontziaren gainean eserita,
haragian tinkatzen zaio komun baten hotza,
eta eskuen artean estutzen du errealitatea,
eutsiko dizkion eskurik ez dagoelako.
Lau minutu baino ez ziurtasun-ezerako,
antigoaleko heroiek, Delfos-eko orakuluari
beren patuaz galdetzean
sentitzen zutenaren antzekoa. Lau minutu
baino ez, desiratzeko, denak errepikatzen
jarrai ditzan grisalla baten tonu guztiak,
uraren betiereko ibilbideak isiltasuna hausten duen
eta pultsuen taupadari galga ematen dion bitartean.
Lau minutu amiaezin baino ez,
hondoa hausten ari zaion bizitza batean pentsatzeko,
aspaldian Rodes-eko kolosoak egin bezala;
galderei itzuri egin, eta ekuazio
ebazten zail bati soluzioak
aurkitzeko, evezaguna isolatu beharrean.

Només quatre minuts, i el toc d'un temps aquós, per veure's a un mirall fictici amb el cos deformat, o amb el cor buit en una cambra d'hospital, asèptica.
Només un gest posarà fi a l'espera i, com quan es decanta amb la mà el fum, s'esvaeixen els dubtes, i omple els dos pulmons de joia: es treu un pes de dins. Potser al mateix moment dos vells amants, que encara no han pogut saber-se pares, acaben una espera amb les mans juntes: només quatre minuts pel desconsol o per la màgia de saber que un i un no sumen dos, com sempre han fet. Només quatre minuts per a un final igual, però que obliga a un altre gènere.

Els déus de fang (2007)

Lau minutu baino ez, eta eguraldi urtsu baten ukitua, norbere burua fikziozko ispilu batean ikusteko, gorputza desitxuraturik, edo bihotza husturik, ospitaleko ohe aseptiko batean. Keinu batek baino ez dio itxaroteari azkena emango eta, kea eskuarekin baztertzen denean bezala, uxatzen dira zalantzak, eta birika biak pozez betetzen: pisu bat eraisten da barrutik. Beharbada une berean bi maitale xaharri, orain arte guraso izan gabeak, elkarren eskuak bildurik, amaitu zaie itxarotea: lau minutu baino ez, atsekaberako, edo xarmaturik jakiteko bat eta bat ez direla bi, beti gertatu izan den bezala. Lau minutu baino ez, amaiera berdintsu baterako, baina beste genero batera behartzen duena.

Els déus de fang [Lokatze Jainkoak] (2007)

Tortugues

Es feréstec i trist aquest so fosc:
les tortugues copulen al jardí.
S'escometen, i fugen, i s'atrapen,
intenten acoblar-se però els costa,
encara que la força dels seus gens,
un ímpetu ancestral que els bull endins,
desitja sobreviure-les, usar-les,
i els fa cremar la sang sota la closca.
L'escut del ventre topa amb la cuirassa,
i no es miren ni es troben la carn rèptil.

Dortokak

Izugarri eta tristea da soinu ilun hau:
dortokak kopulatzen lorategian.
Eraso, ihes egin, batak bestea harrapatzen dute,
elkartzen saiatu, nekez bai nekez,
baina bada beren geneetan indar bat,
barnean irakiten daukaten oldar antzinako bat,
eta haien baino gehiago bizi nahi du, erabili egin nahi ditu,
eta odola utan jartzen die maskorraren azpian.
Sabeleko ezkutuak oskolarekin jotzen du,
eta ez diote elkarri narrasti-haragia ikusten, aurkitzen.

Fa soroll el plaer que els porta al risc
de quedar panxa enlaire i no tombar-se,
quietes i sense alè, cuites pel sol;
que el principi vital que mou l'espècie
ja s'ha perpetuat en l'individu.
És feréstec i trist aquest so fosc,
com els crits i els gemecs que fa la nit.

Principi de plaer (2007)

Zarata egiten du plazerak: hankaz gora eta jiratu ezinik,
geldi eta arnasestuka, eguzkiak egosirik
geratzeko arriskura daramatzan plazerak;
espeziea mugiarazten duen bizi printzipioa
betikotu egin baita jada banakoarenagan.
Izugarri eta tristea da soinu ilun hau,
oihu eta intziriz jositako gaua bezala.

Principi de plaer [Plazeraren printzipioa] (2007)

Per trobar arrels

Ve d'un món, corromput amb mots estranys
per segles de domini i de veïnatge,
que el fang ha anat tacant o s'ha empassat.
És d'una terra on tenen nom les cases,
on s'hereten motius sense cognoms.
Recorda encara un temps de fred de ferro,
de molls cremant, ansats, i torrapans,
d'ensulfatar, lligar, d'anar a fer llenya,
d'aviram a les gàbies de l'eixida.
Coneix tots els pedaços i els sargits,
i unes cançons d'infant que ningú sap.
Ara és com l'estrangeur en un país nou
que ningú entén quan diu els mots dels seus,
com el mut que demana caritat,
i vol els sots, les coses que va perdre.
Senglar que furga inútilment en fang
per trobar arrels.

Planisferi lunar (2008)

Sustrai bila

Menpekotasun eta auzotasun mendeetan
hitz arrotzez ustelduriko mundu batetik dator,
lokatzak zikindu edo irentsia.
Haren sorlekuan, etxeek izena dute;
abizenak gabe, ezizenak hartzen dira oinordetzan.
Gogoan dauka oraindik burdin hotzezko garai bat:
suhatz kartsuak, lapikotxoak eta txigorkaiak,
sulfatatzea, lotzea, egur egitera joatea,
oilategiko hegaztiak atariko kaioletan.
Ezagunak ditu adabaki eta pasaratzeguztiak,
eta beste inork ez dakizkien haur abestiak.
Orain, arrotza lurralte berrian bezalakoa da,
inork ez dio ulertzen beretarren hitzak esatean,
errukia eskatzen duen mutua bezalakoa da,
eta galdu zituen gauzak, ibarrak, nahi ditu.
Lokatzetan alferrik uxarka ari den basurdea
sustrai bila.

Planisferi lunar [Ilargi planisferioa] (2008)

Papiroflexia

A quatre mans, anem plegant vaixells
de sécs senzills i imatge aproximada
a aquelles naus que de petits pintàvem.
Anem fent nits de flotes de paper
que llencem a la mar d'incertes vies.
Anem bufant les falses veles junts
per arribar a bon port sense naufragi.
Mentre anem oblidant tanta figura
inerta i singular, sense destí,
que els nostres dits han fet amb el seu art,
seguim plegant vaixells i els confiem
la nostra traça, i la rosa dels vents.

Circumstàncies adverses (2011)

Papiroflexia

Lau eskutara, belaontziak tolesten dihardugu,
toles soilekoak, eta itxuraz, gutxi gorabehera,
umetan margotzen genituen itsasontzi haien modukoak.
Paperezko ontzidien gauak egin,
eta bide ezezagunetako itsasora jaurtitzen ditugu.
Bela faltsuak puzten ditugu elkarrekin
portura onik iristeko, itsas galerarik gabe.
Bien bitartean, ahaztu egiten ditugu gure hatzek
beren arteaz sortu dituzten hainbeste irudi
bizigabe eta berezi, paturik gabeak;
belaontziak tolesten jarraitzen dugu, eta haien esku
uzten dugu gure joaira, eta haize-arrosa.

Circumstàncies adverses [Egoera desegokia] (2011)

L'ocell occult

Recordo de petit les orenetes
fent nius al voladís de la teulada:
no van tornar, i els caus de fang van caure.
Quan jugava, els pardals, en fila als fils,
estesos, resignaven el mal temps—
i a vegades també aquells núvols mòbils
d'estornells fent figures de cent ales.
Encara vénen a aplegar les granes
i es fonen, humilment, entre les garses
que salten pel jardí, cucotejant,
i fan sonar carraques a l'estiu.

Ezkutuko txoria

Gogoan dauzkat, txikitán, enarak
habiai egiten teilatuaren hegalean:
ez ziren itzuli, eta erori egin ziren lokatzezko gordelekuak.
Jolasean ari nintzela, txolarreak, ilaran kableetan,
harro, eguraldi txarrarekin etsirik;
eta, batzueta, araba-zozoen hodei mugikorrak ere bai,
ehun hegaleko irudiak marrazten.
Oraindik ere etortzen dira aleak biltzera,
eta umilki elkartzen dira lorategian
jauzika dabiltzan koartzekin, mokoka,
udan karrakak jotzen dituztenak.

Hem vist creuar uns quants ànecs, cap cigonya,
i voleien enllà gavines tipes.
De coloms no n'hi ha hagut, però un bon dia
van començar a criar un parell de tòrtore:
han nascut dues notes amb perfídia
i enmig de les antenes molts més vols.
Quan el fosc ve o se'n va, si el fred s'espanta,
refilen rossinyols, discrets i frescos.
Amb els anys graten terra plomes brutes
amb bec esquerp i groc que n'han dit merles.
Ja ens hem acostumat als esgarips
que fa el paó, i als espinguets del gall.
Però d'un temps ençà canta un ocell
de timbre diferent i toc estrany,
que s'esquitlla, rabent, si el vull mirar.
No sé on és, no sé què és, però m'inquieta
desconèixer el seu nom, d'on ha nascut,
qui ha canviat el meu món perquè ara el senti,
per què ve sol i em fuig, i em canta a mi,
signe d'un moment buit, i aquest meu temps.

Circumstàncies adverses (2011)

Ahate batzuk ikusi ditugu pasatzen, zikoinarik ez,
eta harago, hegan, kaio ase batzuk.
Usorik ez da egon, baina halako batean
ume egiten hasi zen usapal bikote bat:
bi nota temati jaio dira, eta orain
askoz hegaldi gehiago dago antenen artean.
Iluntzea etorri, edo alde egiten duenean, hotza uxatuz,
txioka urretxindorrak, zuhur eta fresko.
Urteak aurrera, lurrean aztarrika, luma zikin,
mokoia muker eta hori, zozo izenekoak.
Dagoeneko ohituta gaude indioilarren
garrasietara, eta oilarraren oihuetara.
Baina aspaldi honetan tinbre eta hoskera
ezberdineko txori batek kantatzen du:
ikusi nahi badut, ziztuan alde egiten du.
Ez dakit non dagoen, ez zer den, baina kezkatzen nau
haren izena ez jakiteak, non jaio ote den,
nork aldatu didan mundua, orain entzun egiten diodalako,
zergatik doan bakarrik eta ihes egiten didan, eta niri kanta-
tzen didan,
une huts baten, eta neure garai honen, seinale.

Circumstàncies adverses [Egoera desegokia] (2011)

Granes i plantes

Un home mai no escull el lloc on neix,
potser tria allà on viu, el seu estatge,
el que és, i, fins i tot, com existeix,
però és sol, terra i aigua: el seu llenguatge.

Gent forastera (2012)

Haziak eta landareak

Gizon batek ez du sekula bere jaioterria hautatzen;
izatekotan, bizilekua aukeratzen du, bere egoitza;
nor den eta, azken batean, nola bizi den;
baina, izan, eguzki, lur eta ura da: bere hizkuntza.

Gent forastera [Arrotz jendea] (2012)

No teníem banderes

No teníem banderes,
no crèiem que en calguessin.
Les dels veïns penjaven als balcons oficials,
amb les seves insígnies, a tots els actes públics...,
quan obrien la boca també ens les ensenyaven.

No volíem banderes
perquè ens fèiem vergonya,
d'exposar-nos tan alt, de fer veure que ens crèiem.
No volíem ensenyes que obliguessin lluitar,
tants anys dins de la por.

Ara tenim banderes
sota el sol i la pluja,
colors descolorits que ens onegen l'orgull
de tenir-ne el pap ple i no haver restat muts,
resolts a no dubtar.

No teníem banderes
i, demà, no en voldríem.
Quin goig poder plegar-les —el cel ben net de pals—
i desar-les, ocultes, ben al fons de l'armari...
Ja no ens caldran banderes, ni tan sols un cop l'any.

23/IV/2015
(Inèdit)

Ez geneukan banderarik

Ez geneukan banderarik,
ez genuen uste beharrezko zirenik.
Auzokoenak balkoi ofizialetan zeuden zintzilik,
beren zutoihalekin, ekitaldi publiko guzietan...,
ahoa irekitzen zutenean ere erakusten zizkiguten.

Ez genuen banderarik nahi,
lotsa ematen zigulako
geure burua hain goian erakusteak, banderetan sinesten genu-
ela azaltzeak.
Borrokatzera behartzen zuten banderarik ez genuen nahi,
hainbeste urte beldurraren baitan.

Orain baditugu banderak
eguzkipean eta euriorean,
kolore margulduek harrotasuna inarrosten digute
sabela beterik edukitzearen eta mutu geratu ez izanaren harro-
tasuna,
zalantzarak ez izatera deliberaturik.
Ez geneukan banderarik
eta bihar ez genuen nahiko.
Zer-nolako poza tolestu ahal izatea —zerua batere hagarik
gabe—
eta ezkutuan uztea armairuaren barruko aldean...
Jada ez da banderarik beharko, ezta urtean behin ere.

2015/IV/23
(argitaragabea)



De *País de vent* (2011)

L'abast de la mà

Aixeca el cap i mira l'univers.
Amida'l amb el cartabó del pam.
D'una estrella a l'altra, hi ha un pam i mig
dels teus. I ara torna els ulls a la Terra.
Prova d'utilitzar el rascle dels dits
per llaurar el fang d'un parterre. Aprofita
la ganiveta d'ungla d'un dels polzes
i secciona el pit d'un pardal mort.
Apunta en un quadern tot el que vagis
aprenent. Potser la sang de l'ocell
gravarà en paper blanc el traç subtil
de les empremtes del teu capcirò.
Fes cassoleta amb la mà i recull aigua
del primer riu o safareig que trobis.
Pots assajar que formi una rasqueta
per trencar el gebre prim dels tolls, que guarda
una reserva d'aigua engelabrida.
Que es torni còncava com la cullera
que fan servir els de la gelateria
i amb força amassi un grapat de neu flonja
fins a deixar-la pedra blanca, esfèrica.
Tu estima amb totes dues mans la pell
de la noia que jeu al teu costat.

País de vent [Lurralde haizetsua] liburutik (2011)

Eskura

Altxa burua eta begira unibertsoari.
Neurtu ezazu ahurraren eskuairarekin.
Izar batetik bestera, zure arra bete
eta erdi dago. Eta orain itzuli begiak Lurrerantz.
Saia zaitez hatzen eskuarea erabiltzen
parterre bateko lokatza lantzeko. Balia ezazu
hatz lodietako baten azazkal-aiztoa,
eta ebaki ezazu hildako txolarre baten bularra.
Idatz ezazu kaier batean ikasiz zoazen
guztia. Beharbada txoriaren odolak
paper zurian grabatuko ditu
zure hatz-markaren marra sotilak.
Esku ahurra bildu, eta ura batu
aurkitzen duzun lehen ibai edo askatik.
Saia zaitezke arrasca bat eratu dezan,
putzuetako antzigar mehea hausteko,
ur izoztuaren erreserva bat gordetzen baitu.
Ahur bilakatzen da, izozki dendakoek
erabiltzen duten koilara bezala,
eta indarrez oratzen du eskukada bat elur harro,
harik eta harri zuri, biribila utzi arte.
Maita ezazu esku biekin zure alboan
datzan neskaren larruzuala.

Posa un palmell damunt del seu pit nu.
¿En sents el cos i, més endins, el cor?
(El poema voldria haver descrit
el que en diríem l'abast de la mà.
El poema voldria apamar l'ànima.)

Jar ezazu esku barrua haren bular biluzian.
Sentitzen al duzu gorputza eta, barrurago, bihotza?
(Poemak eskura dagoena
dei dezakeguna deskribatu nahi zukeen.
Poemak arraz arra neurtu nahi luke arima.)

L'estetoscopi

Trenta anys enrere, veig que un metge aplica
—la samarreta, amunt— el metall fred
del seu estetoscopi primer al pit
i després a l'esquena d'un marrec
que arriba amb febre a la consulta i tus
tan aspre com un gos. L'home l'ausculta
—Inspira fondo... Deix 'nar l'aire a poc a poc.
Veus del pulmó una mica enrogallades.
La pell del nen fa més tebi el metall.
Minuts després, se'n torna l'enfebrat
a casa amb el seu pare, que a la mà
du el paper prim d'una recepta escrita
—l'altra mà clou la seva mà petita.

El pacient no es va neulir del tot
i encara és viu, sense ombra de pneumònies.
Ara és un home fet que va polint
—una vegada i una altra, obsessiu—
el medalló del seu estetoscopi
quan mira d'auscultar el batec del món,
que aquesta nit li sembla que detecta
en el cor mort d'un nen vell com la febre.

Estetoskopioa

Hogeita hamar urte lehenago, sendagile bat ikusten dut
—elastikoa, gora— bere estetoskopioaren
metal hotza aurrena bularrean ezartzen,
eta gero bizkarrean, kontsultara sukarrez eta
txakur eztulaz iritsi den mutiko bati. Gizonak auskultatu
—Hartu sakon arnasa... Bota airea pixkanaka—.
Birika hots apur bat erlastuak.
Mutikoaren larruazalak metala epeltzen du.
Minutu batzuk geroago, mutiko sukartua
etxera itzultzen da aitarekin; aitak, eskuan,
errezeptaria, paper mehe batean idatzia;
beste eskuak mutikoaren esku txikia.

Gaixoa ez da guztiz ahuldu,
eta bizi da oraindik, pneumonia zantzurik gabe.
Gizon heldua da orain, eta leunduz doa
—behin eta berriz, temati—
bere estetoskopioaren medailoia,
munduaren taupadak auskultatzen saiatzen denean,
gaurko gau honetan iruditzen baitzaio hautematen duela
haur sukarra bezain zahar baten bihotz hilean.

Cor meu

No en tens cap altre: és el teu cor.
Tan coriaci, i més inexpugnable
que les figueres de moro que creixen
en timbes fordes, ferestes com tombes.
En canvi, altres vegades, fonedís,
retut i vulnerable com la figa
que, des del mirador d'una branca alta
al veïnat amable d'un jardí,
ha caigut al carrer i, oferta al trànsit,
semsa que es queixi —estremida, esclafada—
sota el corró pneumàtic d'una roda,
o que potser es va descosint —petita
víscera— a la mà cuitosa d'algú
que l'ha collit de terra i ara pren
tant de delit pastant-ne l'hemorràgia.

De *Contrada* (2013)

Casa

Basteix la casa lluny de la ciutat,
de céls nocturns il·luminats d'escòria.
De tant en tant bivaqueja en un prat:
és bo que, amb ull despert, servis memòria

del lloc de cada estrella al buit sembrat,
que notis com al cor et creix l'eufòria

Bihotz enea

Ez daukazu besterik: zure bihotza da.
Hain larrukara, eta amildegia sakonetan
hazten diren indipikondoak, hilobiak bezain
izugarriak, baino menderaezinagoa.
Beste batzuetan, ordea, labainkor,
otzan eta zaurgarri, piku baten antzera:
lorategi atsegina baten ondoan,
adar altu baten behatokitik,
kalera erori eta, zirkulazioaren mende,
badirudi kexu dela —ikaraturik, zapaldurik—
gurpil baten arrabolaren azpian,
edo beharbada desjosten ari da —errai
ttipia— lurretik jaso duen norbaiten
esku artatsuan, eta orain hainbeste
gozamen hartzen du odoljarioa oratzen.

Contrada [Inguruak] (2013) liburutik

Etxea

Nahikoa izan bedi hiritik urruneko etxea,
gauezko zeroak zepaz argiztatuak.
Noizean behin bibak egizu belaze batean:
on da, begiak erne, gogoan har dezazun

izar bakoitzaren lekua hutsarte ereinean,
bihotzean nabari dezazun nola hazten zaizun

d'aquella flor que es dreça a sol colgat
i que de nit coneix l'hora de glòria.

Basteix-la a prop d'un camp de blat que al juny
et faci confident del so, entre espigues,
d'una veu íntima de vent. S'esmuny

com aquest vent, la vida —home que artigues,
vinclat, el tros de temps que tens i, al puny,
comences a sentir tremor d'ortigues.

De rerum natura

Quin goig si ara sabés el nom de l'herba
que tinc als dits, i el nom de cada ocell!
I el de l'insecte confós pel serrell
fullós del salze —figura que enerva

l'aigua que fuig, i que amb ull d'arbre observa,
quiet des de la riba, com farell
on ja no crema el llum! Ah, si el cadell
sabés cridar, i la mare que n'és serva!

Si hagués, guardats entre tantes paraules,
noms de bolets per poder dur a aquest vers
l'olor fonda de bosc —tal com les aules

guarden lliçons que sempre han de servir-te!
Si pogués dir els estels de l'univers
com sé el nom del dolor de no tenir-te!

ilunkeran zutitzen den eta loria garaia
gauez duen lore haren euforia.

Nahikoa izan bedi, galsoro batetik gertu, ekainean
haizearen ahots barreneko baten
soinuaren lagun min, galburu artean. Haize horren

modura labaintzen da bizitza —makurturik, daukazun
denbora puska luberritzen duzun gizona, ukabilean
asun azkura sentitzen hasia zarela.

De rerum natura

Zer poza orain jakingo banu hatzen artean daukadan
belarraren izena, txori bakoitzaren izena!
Eta sahatsaren parpail hostotsuan dabilen
zomorro nahastuarena —arbolaren irudiak

ihesi doan ura asaldatzen du, eta zuhaitz begiz
so egiten, ur ertzean geldi, argirik gabeko
itsas argi baten modura. A, kumeak oihu egiten
baleki, eta amak mirabe ez dela!

Hainbeste hitzen artean gorderik,
ondo izenik balego, bertso hauei
bosoaren lurrin sakona ekartzeko, ikasgelek

beti baliagarri izango zaizkizun lezioak gorde bezala!
Unibertsoko izarrak izendatu ahal banitu
zu nirekin ez izatearen mina dakidan bezala!

Mà de noia

*Quan tu te'n vas,
me deixes la mà tan morta
i tan sola, que me cau.*

BLAI BONET

Durant molts anys vaig témer aquelles mans.
Es rabejaven sota la canella,
i una, balmada, es feia una escudella
si jo tenia set —les seves mans

que tant vaig estimar!—. Eren amants
la meva esquerra i la mà dreta d'ella.
Semblaven fetes de pell de parpella,
les seves mans de noia, sense guants.

Quan jo estava enfebrat, ella em posava
la mà damunt el front i, maternal,
l'hi deixava un instant; i era un regal

sentir al llit, en la fosca, que em palpava
—dits ensonyats— per saber-me a freq seu.
Aquella mà es va fer per dir-me adéu.

Neskatila baten eskua

*Alde egiten duzunean,
hain hilda eta hain bakarrik uzten didazu
eskua, erori egiten baitzait.*

BLAI BONET

Urte askoan esku haien beldurrez izan nintzen.
Txorrotaren azpian garbitu,
eta haietako bat, bildurik, katilu bihurtzen zen
ni egarri izanez gero —hain maite izan nituen

haren eskuak! Bata bestearen maitale ziren
haren ezker eskuua eta eskuin eskuua.
Betile-larruz eginikoak ziruditen
haren neskatila eskuek, eskularrurik gabe.

Sukarrez nengoenean, eskuua ezartzen zidan
kopetaren gainean eta, amatiar,
han uzten zuen une batez; eta opari bat zen

ohean, ilunpean, haztatzen ninduela sentitzea
—hatz logaletsuak— gertu nindukala jakiteko.
Esku hura, niri agur esateko egina zen.

Amor va

¿De què ha servit estimar-te tants anys
—digues, ¿de què?—, que l'amor és un foc
que no podem guardar, i és com si el groc
i el roig que ens escalfaven, ara estranys,

en recordar, ens repintin sols els danys
—rancor i tristesa— o encendrin el manyoc
d'artèries i carn del vell badoc
del cor, que no es cuidava haver parany.

¿Què ens n'ha quedat, del temps de joia? Res
que no es torni odiós, res que no sigui
un ornament de la melancolia.

Atès que l'ànim mai no en surt il·lès,
¿de què ha servit, l'amor? ¿Caldrà que escrigui
que l'obra d'uns quants anys se'n va en un dia?

Advent

A Marta Espinach Llavina

Érem al bosc pels volts de Santa Llúcia.
Hi omplíem una caixa de cartró
de molsa, que guardava la fredor
de la rosada. Cap soldat de Prússia

Maitasuna badoa

Zertarako balio izan du horrenbeste urtean zu maitatzea
—esan, zertarako?—, maitasuna baldin bada gorde ezin dugun
su bat, eta berotzen gintuzten horiak
eta gorriak, orain ezezagunak,

gogoratzean, bakarrik kalteak errepikatuko balizkigute bezala
—gorrotoa eta tristeza—, edo lakioez kezkatzen ez zen
bihotzeko, despistatu zahar horretako,
arteria eta haragi eskukada piztuko balu bezala?

Zer geratu zaigu pozezko garaitik? Deus ez,
gorrotagarri bihurtzen ez denik; deus ez,
malenkoniarren apaingarri ez denik.

Gogoak sekula irlarik sortzen ez duenez gero,
zertarako balio izan du maitasunak? Idatzi behar ote dut
hainbat urtetako lana egun bakar batean badoala?

Abendualdia

Marta Espinach Llavina-ri

Basoan geunden, Santa Luzia inguruan.
Han, goroldioz betetzen genuen kartoizko
kutxa bat, ihintzaren freskurari eusten zion
goroldioz. Prusiako inongo soldaduk

no emularia el caçador en l'astúcia
d'espiar el cau, abrigat de velló.
D'una herba, en fèiem arbre. Era, el turó,
un roc engelabrit com camps de Rússia.

La nostra mà de nen feia nevar
damunt l'escorça eixuta de la serra;
llaurava el tros, canalitzava un riu.

Teníem el cor fort, prest per cavar
—trencant-ne el glaç— fins la inhòspita terra.
Encara era a la branca, el nostre niu.

ez zuen ehiztaria abilezian berdinduko
artilez babesturiko gordelekua zelatzen.
Belar batez, zuhaitz egiten genuen. Muinoa
haitz izoztu bat zen, Errusiako landak bezala.

Gure haur eskuak elur eragiten zuen
mendilerroaren azal lehorren gainean;
alorra lantzen zuen, ibai bat bideratzen.

Bihotza sendo genuen, izotza hautsiz,
lur babesgaberaino zulatzeko prest.
Artean adarrean zegoen gure habia.

Del llibre inèdit *Matí de la mort*

Dinar de Nadal

A Xavier Brotons

I enmig d'un dia deslluït cremem com atxes

ÓSSIP MANDELSTAM

Sempre faig tard, deies quan, finalment,
apareixies al marc de la porta,
i tots ja érem a taula, i t'esperàvem
—amb gana, esclar, i amb mala llet, alguns—,
perquè ens havien citat a les dues
i tu arribaves sempre a quarts de quinze,
llavors que, de l'aperitiu, només

Matí de la mort [Heriotzaren goiza] liburu argitaragabetik

Gabonetako afaria

Xabier Brotons-i

*Eta egun distiragabe batean
zuzien gisa sutu ginen*

ÓSSIP MANDELSTAM

Beti berandu iristen naiz, esaten zenuen, azkenik
atearen ueltaian agertzen zinenean,
eta ordurako denok mahaian, zure zain
—gogoz, noski, eta batzuk, jenio txarrez—,
hitzordua ordu bietan genuelako
eta zu beti iristen baitzinen hirurak aldera, txolinduta,

en restaven pinyols d'oliva als plats
i grans de sal i engrunes de patates,
i unes escorrialles vermelloses
de salsa d'escopinyes, en uns bols,
i de vermut, a les copes dels grans.
El pare remugava alguna queixa,
però, de tan indirecta com era
—i vertebrada per un fil de veu,
que naixia de la gola operada—,
semblava que parlés d'una altra noia,
car tu eres la nineta dels seus ulls.
Ho sento: sempre, sempre he de fer tard.
És pel muntatge que estem preparant.
I tu anaves traient-te la bufanda,
primer, i la gorra, l'abric i el jerssei.
I, en l'aire remogut en desvestir-te
de tanta roba, quedava, durant
uns quants segons, una pudor de fum
de tabac ros: canells i braços primis,
les mànigues lleugerdes de la brusa,
vèiem això —que eres molt fredolica,
però a cals pares s'hi està tan calent!—.
A taula, començaves a fer el plaga,
i et perdonàvem, cada any, el retard
per la teva manera de ser, alegre.
Sempre faig tard, mon Dieu. No tinc esmena!
Deies *mon Dieu* per recordar que havies,
hélas, viscut dos anys sola a Lió
estudiant teatre i art dramàtic
(l'últim dinar de Nadal que et veiérem
vas fer salat —vas dir— per un muntatge:
vés a saber què estàveu preparant
—*¿un Ubú Rei de barriada, un Shakespeare?*—).

janaurrekoetatik plateretan bakarrik
gelditzen zirela oliba-hezurrak,
eta gatz-aleak eta patata-apurrik,
eta, katilu batzuetan, berberetxo-saltsaren
arrasto gorrixka batzuk,
eta bermutarenak, helduen kopetan.
Aitak kexuren bat egiten zuen marmarka,
baina hain zen zeharkakoa
—eta ahots-hari batez eratua,
ebakuntza egindako eztarritik aterea—,
beste neskatala batez ari zela baitzirudien,
zu haren bihotzeko azukre-koxkorra zinen eta.
Sentitzen dut: beti, beti iristen naiz berandu.
Prestatzen ari garen muntaiagatik da.
Eta lepokoa kentzen zenuen, aurrena,
eta txanoa, berokia eta jertsea.
Eta horrenbeste arropa eranztean
higitutako airean, segundo batzuetan,
tabako gorriaren ke-usaina
gelditzen zen: eskultur eta beso argalak,
blusaren mauka arinak
ikusten genituen —oso hozbera zara,
baina hain bero egoten da gurasoenean!—.
Mahaian, txantxetan hasten zinen,
eta urtero barkatzen genizun berandutu izana,
zure izateko eragatik, hain alai.
Berandu iristen naiz beti, mon Dieu. Ez daukat erremediorik!
Mon Dieu esaten zenuen gogorarazteko,
hélas, bi urtez bizi izan zinela bakarrik Lyon-en,
antzerkia eta arte dramatikoa ikasten
(ikusi zintugun azkeneko Gabon-afarian
berandutu egin zinen —esan zenuen— muntaia batengatik:
auskalo zer ari zineten prestatzan

I no gosàvem evocar-te França:
hi havies fracassat. No eres constant
—i la teva manera de ser un caos!—.
Sempre faig tard, deies, i aquesta frase,
més que cap altra, et definia bé.
La mare mai deixà de protegir-te:
vas arribar després de quatre nois,
l'única nena en nissaga de mascles.
Ja vas fer tard en pic del naixement:
en Marc i tu us portàveu nou anys —tretze
amb mi, que sóc el gran—. I et vas passar
fent tard, sense voler, tota la vida.
Arribar tard va ser, doncs, el teu fat.
I ara, amb els pares a la vuitantena,
veig el mateix posat d'ensopiment
en els germans, cap jup damunt el plat,
tres homes que hem precoçment envellit.
Quin dia de Nadal més trist, Eulàlia!
Jo penso que un galet és una ròtula,
i en Quim, el nét d'en Pep i de la Clara,
potser rumia que la carcanada
que hi ha a la plàtera de la carn d'olla
—un corn farcit de cigrons, i de fulles
de col, i de bocins de pastanaga—
s'assembla a una armadura rovellada
plena de vísceres de cavaller
velades per un tel ressaguer d'ànima.
La mare no ha enxampat el punt de sal
del gall, que, a més a més, degota d'oli.
Sort dels torrons, que ens deixen gust de dolç
als llavis! Sort, encara, de les neules,
que, bo i menjant-ne, fan jugar els petits!
Hi ha fills i néts (i aquest primer besnét,

—auzoko Ubu errege bat, Shakespeare-ren lan bat?—).
Eta ez ginien ausartzen zuri Frantzia oroitarazten:
porrot egin baitzuen. Ez zara saiatua
—eta nolako moldez zaren anabasa!—.
Beti iristen naiz berandu, esaten zenuen, eta esaldi horrek,
beste ezeinek baino hobeto definitzen zintuen.
Amak beti babestu zintuen:
lau mutikoren osten etorri zinen,
neskatila bakarra arren leinuan.
Jaiotzeko unean ere berandu iritsi zinen:
bederatzit urteko aldea zenuten Marc-ek eta biok —hamahiru
nirekiko, neba nagusia bainaiz—. Eta berandu iristen
eman zenuen, nahi gabe, bizitza osoa.
Berandu iristea zen, beraz, zure patua.
Eta orain, gurasoek laurogeitaka dituztela,
lozorro jarrera bera ikusten dut
anaiengana, buru makur plateraren gainean,
goizegi zahartu garen hiru gizon.
Zeinen gabon egun tristea, Eulalia!
Nik pentsatzen dut makarroi bat belaunezur bat dela,
eta Quim-ek, Pep eta Clararen bilobak,
beharbada hausnartzan du haragi gisatuaren
erretiluan dagoen karkasak
—harkaitz bat, txitxirioz eta aza hostoz
eta azenario puskaz betea—
antza daukala zaldun baten erraiez beteriko
armadura herdoildu batekin,
arimaz atzeratutako mintz batek estalia.
Amak ez dio harrapatu gatz-puntua
oilarrari eta, gutxi balitz, oliao dario.
Eskerrak turroiei, zapore eztia uzten digute
ezpainetan! Eskerrak, baita ere, olatei,
jateaz batera, haurrek jolas egiten dute!

que tu ja no has tingut temps de conèixer).
No acabes d'arribar: no t'esperem.
No arribes mai: no t'hem reservat lloc.
Els esperits com tu no fan mai tard:
hi són a perpetuïtat (almenys
fins que no es mori l'últim que els recorda).
És el primer Nadal que tu no hi ets,
Laia, el primer dinar que ets puntual:
la comensal absent que seu a taula,
i menja i beu, pica l'ullet, somriu,
i ens va parlant, calmosa, en la memòria,
i sempre fa pessigolles als nens
i, en acabat de l'àpat, se'ls endú
en un racó i, mentre els grans fem la copa
i alguns encenen un cigar, i fumen,
i el pare es queda contemplant el foc
després de fer servir l'atiador
—és la seva manera de sentir-se
tan bé, silent en la malenconia—,
ella els explica històries de neu,
belles contalles del temps cru d'Advent
i d'aquest temps de roses de la infància,
i és com els vells fantasmes —immortals
i edificants— de la literatura.

Badira seme-alabak eta ilobak (eta lehen birbiloba,
zuk ezagutzeako astirik izan ez duzuna).
Zu ez zara iristen: ez zaitugu espero.
Ez zara sekula iristen: ez dizugu lekurik gorde.
Zu bezalako espirituak ez dute sekula berandutzen:
hortxe daude behin betiko (behintzat
gogoan zauzkan azkena hiltzen ez den arte).
Hemen ez zauden lehen Gabonak dira,
Laia, garaiz iritsi zaren lehen afaria:
ez dagoen mahaikidea, mahaian eseri,
jan eta edan, begi keinua egin, irribarre,
eta hitz egiten digu, patxadaz, memorian,
eta kilimak egiten dizkie beti haurrei
eta, oturuntza amaiturik, txoko batera
eramatzen ditu, helduok kopa edan bitartean,
eta batzuek zigarro bat piztu, eta erretzen dute,
eta aita suari begira geratzen da
su-makoa erabili ondoren
—hori du ondo sentitzeko
modua, malenkonian isilik—,
Laiak elur istorioak kontatzen dizkie,
Abenduko eguraldi gorriaren ipuinak,
eta literaturako mamu zaharren
modukoa da: hilezkor eta onbideratzailea.